

**MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL DE EUZKO ALDERDI JELTZALE - PARTIDO
NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV) AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN,
EN REPRESENTACIÓN DE LA PLATAFORMA "VENEZOLANOS EN EUSKADI", EN
SOLIDARIDAD CON EL PUEBLO VENEZOLANO TRAS LOS TERREMOTOS DEL 24
DE JUNIO DE 2026**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El pasado 24 de junio de 2026, Venezuela sufrió un doble sismo de excepcional gravedad: un primer terremoto de magnitud 7,2 y, apenas 39 segundos después, un segundo movimiento telúrico de magnitud 7,5 en la escala Richter, con epicentro en el estado de Yaracuy. Este desastre se sitúa como uno de los episodios sísmicos más graves registrados en el país en más de un siglo, provocando estragos severos en estados de gran densidad de población como La Guaira, Miranda, Aragua, Carabobo y Falcón, así como en el Distrito Capital y en la propia ciudad de Caracas.

Las consecuencias humanas de esta tragedia son desgarradoras. Las cifras de víctimas directas se traducen en miles de personas fallecidas, decenas de miles de heridos, desaparecidos y damnificados, resultado directo del colapso de infraestructuras residenciales y servicios públicos fundamentales. Las agencias de Naciones Unidas, particularmente la Organización Internacional para las Migraciones (OIM), estiman en aproximadamente 6 millones el volumen de personas potencialmente afectadas por el impacto directo e indirecto de estos terremotos.

Esta catástrofe natural golpea a la población venezolana en un escenario previo de extrema vulnerabilidad nacional, tras años de una profunda y prolongada crisis económica, social, política e institucional. Esta fragilidad estructural agrava sustancialmente los efectos del desastre y demanda una respuesta humanitaria ágil, firme y continuada por parte de toda la comunidad internacional y de las instituciones públicas a todos sus niveles.

Euskadi en su conjunto, y también nuestro municipio, Beasain, mantiene estrechos vínculos históricos, culturales, económicos y familiares con el pueblo venezolano. La diáspora venezolana residente en nuestro territorio vive esta situación con una honda preocupación, angustiada por la lejanía y las dificultades para comunicarse y asegurar el bienestar de sus seres queridos en el país de origen.

Los ayuntamientos, como la institución pública más cercana a la ciudadanía, constituyen un canalizador fundamental de la solidaridad local, de la sensibilización social y de la cooperación descentralizada para mitigar las dramáticas repercusiones de este desastre.

Por todo ello, se propone al Pleno del Ayuntamiento de Beasain la adopción de los siguientes acuerdos.

PROPUESTA DE ACUERDO

1. El Pleno del Ayuntamiento de Beasain expresa su más profundo pesar y solidaridad a las familias de las víctimas mortales, a las personas heridas, desaparecidas y a todas aquellas que han perdido sus hogares y medios de vida tras los terremotos del pasado 24 de junio de 2026 en Venezuela.
2. Manifiesta la cercanía de esta institución con la comunidad venezolana residente en Beasain y en el conjunto de Euskadi, trasladándoles el apoyo de este Ayuntamiento en estos momentos de extrema preocupación y dolor familiar.
3. Reconoce y agradece el esfuerzo incansable de los equipos de rescate, personal médico, servicios de emergencias y organizaciones humanitarias que actúan sobre el terreno arriesgando sus vidas para mitigar el impacto de esta crisis.
4. El Ayuntamiento de Beasain hace un llamamiento expreso e invita a toda la ciudadanía del municipio a colaborar activamente con las organizaciones no gubernamentales que están canalizando la asistencia humanitaria directa en las zonas afectadas, destacando la labor de entidades como Cáritas, ACNUR, la Fundación Tierra de Gracia, u otras organizaciones públicas o privadas especializadas en cooperación internacional para el desarrollo y acción humanitaria de urgencia.
5. Insta al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Gipuzkoa a mantener, coordinar y reforzar las partidas presupuestarias de emergencia, los recursos de cooperación descentralizada y el apoyo técnico para las tareas de reconstrucción a medio y largo plazo en Venezuela.
6. El Ayuntamiento de Beasain dará traslado del presente acuerdo a la asociación "Venezolanos en Euskadi" y a la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo (Elankidetza), para que tengan constancia del compromiso solidario del municipio de Beasain.

En Beasain, a 23 de julio de 2026.

Fdo.: Grupo Municipal EAJ-PNV

**EUZKO ALDERDI JELTZALEAREN (EAJ-PNV) UDAL TALDEAK BEASAINGO
UDALEKO OSOKO BILKURARI EGINDAKO MOZIOA, "VENEZOLANOS EN
EUSKADI" PLATAFORMAREN IZENEAN, VENEZUELAR HERRIARI ELKARTASUNA
ADIERAZTEKO, 2026KO EKAINAREN 24KO LURRIKAREN ONDOREN**

ZIOEN AZALPENA

2026ko ekainaren 24an, Venezuelak larritasun handiko lurrikara bikoitza jasan zuen: 7,2 magnitudeko lehen bat, eta 39 segundo ondoren, 7,5 magnitudeko bigarren mugimendu telurikoa Richter eskalan, epizentroa Yaracuy estatuan izan zuena. Hondamendi hau, azken mende baina gehiagoan herrialdean eman den gertakari sismiko larrienetako bat da, eta kalte handiak eragin ditu biztanleria-dentsitate handiko guneetan, hala nola, La Guaira, Miranda, Aragua, Carabobo eta Falcón-en, bai eta hiriburuko barrutian eta Caracas hirian bertan ere.

Tragedia honen ondorio humanitarioak guztiz etsigarriak dira. Zuzeneko biktimen zifrek milaka hildako, dozenaka mila zauritu, desagertuak eta kaltetuak adierazten dituzte, bizitegi-azpiegituren eta funtsezko zerbitzu publikoen kolapsoaren zuzeneko emaitza gisa. Nazio Batuen agentziek, bereziki Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak (MNE), lurrikara horien zuzeneko eta zeharkako inpaktuak eragin diezaiekeen pertsonen kopurua 6 milioi ingurukoa dela estimatzen dute.

Hondamendi natural honek Venezuelako biztanleak kolpatzen ditu, urte luzez pairatzen ari diren krisi ekonomiko, sozial, politiko eta instituzional bati gehitu zaion krisia, herritarrek muturreko zaurgarritasuneko egoera batera eramanez. Egiturazko nazio-ahultasun horrek nabarmen larriagotzen ditu hondamendiaren ondorioak, eta nazioarteko komunitate osoaren eta maila guztietako erakunde publikoen erantzun humanitario arin, irmo eta jarraitua eskatzen du.

Euskadik, oro har, eta gure udalerriak, Beasainek, lotura historiko, kultural, ekonomiko eta familiar estuak ditu Venezuelako herriarekin. Gure lurraldean bizi den Venezuelako diasporak kezka handiz bizi du egoera hau, urruntasunak eta jatorrizko herrialdean maite dituenen komunikatzeko eta ongizatea ziurtatzeko zailtasunak larrituta.

Udalak, herritarrengandik hurbilen dagoen erakunde publikoa den aldetik, tokiko elkartasunaren, gizarte-sentsibilizazioaren eta lankidetzaren deszentralizatuaren funtsezko bideratzaile dira, hondamendi honen ondorio dramatikoak arintzeko. Horregatik guztiagatik, Beasaingo Udaleko Osoko Bilkurari honako erabaki hauek hartzea proposatzen zaio:

AKORDIO PROPOSAMENA

1. Beasaingo Udaleko Osoko Bilkurak bere atsekabea eta elkartasunik handiena adierazten die hildako biktimen familiei, zaurituei, desagertutakoei eta Venezuelan 2026ko ekainaren 24an izandako lurrikararen ondoren beren etxeak eta ogibideak galdu dituzten guztiei.
2. Erakunde honek, Beasainen eta Euskadi osoan bizi den Venezuelako komunitatetik gertu dagoela adierazi, eta bere babesa helarazten du, kezka handiko eta familia-atsekabeko une hauetan.
3. Erreskate-taldeen, medikuen, larrialdi-zerbitzuen eta erakunde humanitarioen ahalegin nekaezina aitortu eta eskertzen du, krisi honen eragina arintzeko beraien bizitzak arriskuan jartzen ari baitira.
4. Beasaingo Udalak berariazko deia egiten die udalerriko herritar guztiei, kaltetutako eremuetan zuzeneko laguntza humanitaria bideratzen ari diren gobernu kanpoko erakundeekin aktiboki lankidetzan jardun dezaten. Nabarmentzekoak dira, besteak beste, Caritas, ACNUR, Tierra de Gracia Fundazioa edo garapenerako nazioarteko lankidetzan eta premiazko ekintza humanitarioan espezializatutako beste erakunde publiko edo pribatu batzuk.
5. Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, Venezuelan epe ertain eta luzera berreraikitze-lanak egiteko larrialdiko aurrekontu-partidak, lankidetzazko deszentralizatuko baliabideak eta laguntza teknikoa mantendu, koordinatu eta indartzeko eskaera egiten dio.
6. Beasaingo Udalak erabaki honen berri emango dio "Venezolanos en Euskadi" elkarteari eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari (Elankidetzaz), Beasaingo herriaren konpromiso solidarioaren berri izan dezaten.

Beasain, 2026ko uztailaren 23a.

Sin.: EAJ-PNV Udal Taldea